

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enpresa bat sortzera goazen horretan, enpresa batek denbora luzez iraun ahal izateko garrantzitsua da gure bezeroa finkatua izatea, hau da, norentzat sortuko dugun proiektua ondo definitzea. Horretarako, gure bezeroen ezaugarriak identifikatu behar dira gure proiektua ahalik eta hoberen antolatzeko eta eraginkorra izateko.

Lehenik eta behin, enpresak argi izan behar ditu bere bezeroen ezaugarriak eta norentzat zuzenduta dagoen proiektua. Gure kasuan, bizikleta elektrikoak jarriko ditugun horretan, bezero mota kotxearen erabilera ekiditen duten pertsonak dira eta bizikleta hauek Oarsoaldea osoan zabaldua egongo dira. Bezero hauek ez diote kotxeari horrenbesteko erabilera emango, behar-beharrezkoa denean soilik erabiliko dutenentzat, adibidez bidaia oso luzea denean.

Horrekin batera bizitza ekologikoa eraman nahi dutenentzat aukera paregabea da eskaintzen dugun zerbitzua; izan ere, bakoitzak bere autoa erabiliz, botatzen duen kutsadura ekosistemara ez da onargarria, ikaragarri pila kutsatzen dute eta arazo horren konponketan gure aletxoak eskaintzen dugu. Talde hauei ideia gustatzen bazaiote, beraien laguntza eskuratu ahal izango dugu proiektua zabaltzeko.

Jarraitzeko, esan dezakegu pertsona asko daudela bizikletan ibiltzea gustuko dutenak, horietako askok beraien berezko bizikleta dute, baina zoritxarrez, badago jende asko ezin duena bizikleta bat erosi, hare gehiago bere egoera ekonomiko txarraren ondorioz. Hortaz, gure produktua pertsona hauentzako ere zuzenduta dago, beraien beharrak guztiz asetuko ditugu, kalitatezko bizikleta elektrikoak erabiltzeko ahalmena emango diegu. Esandakoa kontuan hartuta, esango genuke ez dagoela ezer hobegorik pertsona hauei bere aukera ematea eta hauei pozik egitea baino.

Gure zerbitzua kotxean ibili ezin diren pertsonentzat ere zuzendua dago. Beste garraio baten gida baimena atera ezin dutenentzat ere, beste aldetik bidai motzetako kotxea hartu nahi ez duten pertsonentzat erabilgarria izango da. Gure produktua oso praktikoa denez eta aparkatzeko oso erraza gure bezeroentz. at errazagoa eta erabilgarriagoa izango da gure bizikleta bat hartzea beraien autoak hartzea baino. Motorrezko garraioa erabili ezin dutenentzat gure garraio mota garraioa bainon erosoagoa dela uste dugu, bakoitzak nahai

Maddi Aizpurua, Julen Epelde, Iren Iriondo, Oier Lasaga eta Naroa Senperena

duen lekuraino eraman dezakelako eta ez dutelako beraiek erabiltzen duten bitartean beste pertsonekin joan behar.

Bestalde, gizartearen zati guztiak ezaugarri berdinak ez dituela konsziente garen horretan, elbarritasuna duten jendeari laguntzeko asmoa dugu. Horregatik, badaude “handbike” deritzen elementu batzuk non gurpildun aulkiei lotzen zaie eta independentzia handiago ematen dien. Adibidez, Oiartzun bezalako herrietan aldapa asko daudela, erreminta erabilgarria izango litzateke elementu hauek ez baitira merkeak eta familia guztiek ez dute eskumena horrelako gauzak erosteko.

Bukatzeko, esandakoa aztertu eta gero argi dago gu merkatu masiboaren barruan kokatzen garela. Azkenean, guk bezero edo kontsumitzaile talde handi bati beharrak asetzen ditugulako Oarsoaldea eskualdeko herritarrenak zehazki, eta behar hauek oso antzekoak direlako. Guk zehazki bizikleta elektrikoak erabiltzeko beharra asetzen dugu eta baita ere gurpildun aulkia erabiltzen duten pertsonentzat “handbike”-a. Lehen esan bezala gure bezeroak askotarikoak dira: ezin dutenak kotxea erabili, ez nahi dutenak kotxea erabili, bizitza ekologia mantendu nahi dutenei, besteak beste.

Zuzenketak:

file:///home/chronos/u-be8d643bfef1addeb21e58f77093d83cbc654a75/MyFiles/Downloads/
Naroa%20Senperena%20Ansa_42035_0.pdf